

Eliza partikularra eta gutxiengo etnikoak

(J.M. Latxagaren liburuaren inguruan gogoeta kritikoak)

Paulo Agirrebaltzategi

Titulu berbera du J.M. Latxagaren liburuak, baina frantsesez: *Eglise particulière et minorités ethniques*. Frantsesez bait dago idatzirik liburua. Le Centurion Arg., 1978.

J.M. Latxagaren benetako izena Jose Maria San Sebastián da. Liburu hau baino lehenago beste batzu emanak ditu, euskaraz eta euskal gaiei buruz. Azken urteotan kanpotik dabil: Parisen, eta orain New York-en. Parisen Teologiazko ikasketa bereziak egin zituen, eta doktortza lortu; horretarako idatzi zuen tesia da, hain zuzen, orain aurkeztu eta aztertu nahi dugun liburua. Honen titulu osoa zera da: *Eglise particulière et minorités ethniques. Jalons pour l'Évangélisation des peuples minoritaires*. Honen ondoren beste bat ere argitaratua du, frantsesez hau ere: *Minorités nationales et liturgie romaine. L'exemple de la liturgie en basque*.

Hemen aztertzekoa dugun liburua joan zen urtekoa izan arren, ez dut uste beranduegi gabiltzanik. Ez du bere gaurkotasuna galdu oraindik.

1.- Liburuaren haria eta mamia

Teologiaren alorrean dabil liburua. Zehazkiago esanik, Elizaren ikuskera dago tartean; teologiaren aldetik begiratzeko dio Elizari, ordea, eta ez soziologiaren edota politikaren

aldetik. Hala ere, teologian nahasiak dabiltz soziologia nahiz politika.

Sarreran kontzeptu batzu argitzen ditu eta liburu osoaren asmoa agertzen. "Gutxiengo etnikoak" adierazkia "gutxiengo nazionala" eta "erregioa-erregionalismoa" adierazkien erdian bezala jartzen du, eta bi hauen aurrean hura hobesten du bere libururako: izan ere, gutxiengo etnikoak, autorearen eritziz, ez du berez bere nortasun politikoa eskatzen eta, bestetik, ez du "erregionalismoaren" berezitasun ekonomiko hutsa. Gutxiengo etnikoa, kulturazko eta hizkuntzazko nortasunak definitzen du. "Gutxiengo" esatean, berriz, ez da numerotz txikiago den talderen bat adierazi nahi bakarrik, eta bai aginte politikoa eta ekonomikoa bazterturik eta zapalduzik daukan giza taldea ere.

Elizak ba du zerikusirik gutxiengo etnikoei buruz: alde batetik, bere jarrera etikoaren arabera, gutxiengo horien eskubideak baieztatzen dituelako; baina bereziki, teologiaren aldetik, Eliza beronen egiturak berak lotzen du gutxiengo etnikoen arazoarekin, bere katolikotasuna benetan mamitu nahi baldin badu. Bigarren ikuspegi honetatik doa liburugilearen azterketa. Eta ikuspegi hori, "Eliza partikular edo lekukoan" mamitzen dela uste du.

Sarreraren ondoren, hiru zati nagusitan biltzen ditu autoreak liburuaren bost kapituluak:

- Elizaren katolikotasuna eta etnia (lehen hiru kapituluak)
- Eliza partikularra eta beronen katolikotasuna (4. kapit.)
- Eliza partikularren egitura edo partikulartasunaren adierazle nagusiak (5. kapituluak).

Lehenengo kapituluak Elizaren katolikotasunaren oinarri eta sustrai teologikoak agertzen ditu. Pentekosteko misterioak, Elizaren sorreran bertan, honen katolikotasunaren esanahia argitzen du: hizkuntzen eta etnien ugaritasunak markatzen du katolikotasun hori; ez "koiné" zeritzan "hizkuntza unibertsalak". Pentekosteko salbamenak marko etniko-linguistikoa du. Horrela, hain zuzen, Babel-eko sakabanatzea

konpontzen da, benetako haniztasunean. Baina Elizaren katolikotasunak bere benetako sustraia Hirutasunaren misterioan bertan aurkitzen du eta Jesukristoren irakaspenetan zehazten da. Pentekosteko irekimen unibertuala Kristoren beraren jokabidean zabalduz doa. Hain zuzen ere, S.Paulo, Elizaren katolikotasunari zentzu kristologikoa aurkitzen eta argitzen saiatuko da: Kristo bera unibertuala delako, bere Eliza ere katolikoa da; hura da honen katolikotasunaren abiadura eta helburua. Ondoren, autoreak Elizaren tradizioa eta Eliz Gurasoen gogoeta teologikoa azaltzen ditu laburki, Elizaren katolikotasuna nola baieztatu duten agertzeko. Eta testuinguru honetan, ohar luze batetan, Elizak liturgian hizkuntza ezberdinak erabiltzeko izan zuen jokabidea nabarmentzen du. "Katoliko" hitzaren jatorria eta erabilera aipatzen ditu, bereziki sinesmenaren Sinboloetan edo Aitorpenetan: Teologiaren historian zehar "katoliko" hitzaren bi dimentsio nabarmentzen dira: Elizak duen **Espirituaren dohainen osotasuna** eta bertan gertatzen den **herri guztien batasuna**.

Bigarren kapitulan, Elizaren katolikotasunari buruzko gogoeta teologiazkoa sakondu nahi du. Hasteko kontzeptuaren hiru adiera "oker" salatzen ditu: a) katolikotasuna eta erabakartasuna edo uniformitatea berdintzea (zoritarrez Elizaren historian adiera honek indar handia eduki duela, aitortzen du autoreak); b) horren kontrakoa bezala, Ekialdeko Elizetan nabarmendu izan da batez ere: Kristoren Elizaren katolikotasuna Eliza partikularretik abiatuz ulertu izan da eta nazionalismoarekin berdindu, Eliz barnean hausturak sortzeraino; c) azkenik, gaurko askapen teologiaren adiera edo, salatzen du: proletarioen solidaritate eta askapen unibertsalarekin berdinduko luke Elizaren katolikotasuna, proletarioak ere beren unitate etniko eta kulturazkoan ikusi gabe.

Hiru adiera horiek kritikatu ondoren, **Lumen Gentium** Konstituzioaren 13, zenbakia hartzen du, katolikotasunaren "benetako" adiera teologikoa emateko. Eliza gizon eta herri guztien salbamenaren sakramentu unibertuala da; baina

sakramentaltasun hau gizadiaren egitura honetan mamitzen da, eta gizadiaren egitura haniztasunean nabarmentzen da. Horregatik Eliza unibertsala ez da erabakarrà, eta bai erantzekoa. Herrien hizkuntza ezberdinak Elizaren sakramentaltasunaren elementu beharrezkoak dira, dio autoreak: *dans les langues et par elles, en tant qu'éléments nécessaires de la réalité sacramentelle, existe l'Eglise*. Horrela kulturek betetzen dute, alde batetik, Elizaren katolikotasuna, eta, bestetik, Elizak beregan hartzen du kultura bakoitza.

Bide honetatik, Elizaren batasuna "komunio" bezalà ulertu behar da: kultura eta gizarte ezberdinen elkartasun bezala, denek Elizaren misterio bakarretik edaten dutelarik, eta bakoitzaren berezitasuna finkatzen eta bizkortzen delarik.

Elizaren barnean kultura ezberdinak elkar ezagutzean, elkarrengana irekitzean eta elkar indartzean, gutxiengo etnikoen kultura makalenak balioztaturik eta indarturik gelditzen dira: nolabait kultura baztertuen eta zapalduen liberazioa edo askapena bizkortzen da.

Digresio luze xamar bat egiten du autoreak, Elizak, Ebanjelioari jarraiki, pobre eta xumeengana duen joera berezia nabarmentzeko. Gutxiengo etnikoak pobre eta xume horiekin parekatzen ditu. Pentekoste egunez bezala, gaurregun Elizak Herri txiki eta zapalduak hobetsi behar ditu. Hauenganako jokabidean agertuko da Elizak Ebanjelio-balioei buruz duen atxekipena.

Kapituluaeren azken zatiak honelako titulua du: "Katolikotasunari buruzko historiaren anbiguotasuna". Elizaren printzipio teorikoak eta historian zeharko jokabide praktikoa sarritan ez direla batera joan aitortuz, autorea gogoeta apologetikotan luzatzen da batez ere; eta azkenean, berriz ere, anbiguotasun historiko hori gogoratzen du.

Hirugarren kapitulua, aurrekoen jarraipen bezala, baina nolabait beste mailatan jartzen da: hau da, etikaren mailan. Azken Kontzilioak eta zenbait Aitasantuk Gutxiengo etniko eta kulturazkoei buruz esan eta errepikatu dituztenak biltzen

ditu. Kapitulu hau gehienbat Elizaren delako "doktrina sozialaren" alorrean igitzen da, ez zuzenean teologiarenean. Hala ere, Irakasgoaren deklarazioez gainera, Eliza horrek bere bizitzan eta jokabideetan bere burua jatorrizko kulturatan kultureztatzeko, eta Estatuekin egin izan dituen Konkordatueta gutxiengoenganako ardura konkretatzeko izan duen jokabidea, nabarmendu nahi du autoreak.

Eta kapitulua bukatzeko, Eliza unibertsalaren barnean batzorde ofizialbat eskatzen du, Elizaren beraren bertakotzea bultzatzeko: hau da, Herri bakoitzean eta bereziki gutxiengo etnikoetan bertakotzea areagotzeko.

Laugarren kapituluan, liburuaren muin-muinean sartzen da autoreak: hau da, Eliza partikularren definizioan. Orain arte, bereziki Elizaren katolikotasunaz —unibertsaltasunaz— mintzatu da; baina unibertsaltasun hori zera konkretuan eta partikularrean mamitzen denez, Eliza partikularraz mintzatu beharra dago.

Diozesiatik abiatzen da autoreak, Eliza partikularra definitzean. Eta horren lau elementu berezko nabarmentzen ditu: Espiritu Santuaren presentzia, Jainkoaren Hitza, Eukaristia eta Apezpikua. Autorearen ustez, Elizaren misterioa bereziki lau elementu horietan mamitzen da: hor datza Eliza partikularren —Diozesiaren— teologiazkoa, esentziari dagokiona; Eliza partikular horren "lekukotzea", berriz, hau da, bertako kulturari egokitzea eta horretan kultureztatzea ez dagokio Elizaren "esentziari" eta bai horren "existentziari".

Definizio horri eutsiz, Eliza partikularra non gertatzen den jakiteko erizpideak ematen ditu laburki, Von Allemn-en eritzia aipatuz; sei erizpide ematen ditu, nolabait goian emandako elementuak zehazten dituztenak.

Baina elementu eta erizpide horiei begira, esan daiteke, esan, Eliza partikularra eta Eliza unibertsala berdina direla; hala ere, ez dira berdina, alde guztietatik begiratzen bazaie; unibertsala partikular guztien **komunioa** da.

H.de Lubac teologilariaren eskutik bezala doa autoreak,

Eliza partikularren esanahia aztertuz eta sakonduz. Bereziki apezpikuaren aldetik definitzen du, hain zuzen ere, Eliza partikularra. Argi eta garbi esaten du, Eliza partikularra berez dela katolikoa; katolikotasun hau, ordea, aldebikoa da: bata, erabat "teologikoa", Eliza partikularra unibertsalaren parte egiten duena; bestea, "soziologikoa", ingurune kulturazko eta geografiko bakoitzari lotzen duena.

Kapituluaren zatirik garrantzizkoenak titulu hauek dituzte: "Katolikotasuna Eliza partikularrean egiaztatu"; "Katolikotasunaren dimentsioak Eliza partikularrean". Eta nolabait bere gogoeta maila aldatu egiten du, Diozesiatik Eliza partikular "soziokulturalera" aldatuz, nolabait esateko. Izan ere, 122. orrialdean agertzen duenez, kultura partikularrean "sortzen" da Eliza partikularra. Alde honetatik ikaragarrizko garrantzi eklesiologikoa hartzen du kultura bakoitzak, eta horren barruan eta oinarrian bereziki hizkuntzak.

Eliza partikularren katolikotasunaren aipaturiko bi dimentsioak praktikan eta historian zehar mamitzen dira: bata, barrura begira, bestea, kanpora begira.

Barrura begira, herriko gizon guztiak eta horren balio kulturazko guztiak bilduz eta bereganatuz betetzen du Eliza partikularrak bere katolikotasuna. Kristauak oso kontutan hartuko ditu balio horik, kristau mezuaren adierazle direnean; orduan, Jainkoaren aintzarako dira balio kulturazkoak, eta kristauak, bere fedea bultzaturik, landu eta bizkortu egin behar ditu.

Kanpora begira, Eliza partikular katolikoak irekia izan behar du, beste herrietara eta kulturetara Ebanjelioa zabaltzeko; horregatik nazionalismoaren arriskua uxatu behar du. Irekitasun hau, Eliza partikularrak inmigranteei buruz duen jokabidean nabarmentzen da bereziki.

Eliza partikularren definizioa Diozesiaren argitan, eta gero maila sozio-kulturazkoan aztertu ondoren, berriz ere Eliza partikularren teologia osoa galdera bezala jartzen du, terminologiari berari helduz: hau da, Eliza partikularren eta

lekuko Elizaren (Eliza lokalaren) arteko ezberdintasuna azaldu nahian.

Aurrenik H. de Lubac-ek eta Baggio Kardinalearen pentsaerak astintzen ditu, eta "partikularra" eta "lekukoa" hitzak haien kontrara erabili nahi ditu: Diozesia "lekukoa" deitzen du; Diozesiartekoa, berriz, hau da, ingurune sozio-kulturazkoari dagokiona, "partikularra" deitzen du; Diozesi barruko elizak berriz, "Eliz komunitateak" deitzen ditu.

Kapitulu luze hau bukatzeko, Diozesiaren barrutiak nola mugatu beharko lirатеkeen aztertzen du, horren katolikotasunaren kontrakoak izan ez ditezen. Erizpiderik nagusiena geografikoa izan da; baina hori ez da aski: unitate sozio-kulturazkoak oso kontutan eduki behar dira, Elizaren administrazioan eta kristau komunitateetan. Honela bakarrik erantzungo dio Elizak, geografiazko barrutian gertatzen diren gutxiengo sozio-kulturazkoei.

Bosgarren kapitulan Eliza partikularren nortasuna mamitzen eta agertzen duten alderdiak aztertzen ditu: hau da, Eliza partikularren egitura edo arkitektura azaltzen du.

Baina zer da zehazki Eliza partikularren partikularitasuna mugatzen duena? Erizpide etniko-kulturala bakarrik ote dugu, partikularitasun hori baiezteko? Aurrenik, autoreak ez du onartzen, Eliza partikularra, bere zentzu berezitan, sektore sozial batek muga lezakeenik: klase sozialak, edota militarren sektoreak; adinen arabera ere, ezin daiteke Eliza partikularra mugatu. Zerbait iraunkorragoa eta unibertsalagoa behar du izan, Eliza partikularren partikularitasuna oinarrituko duena: kultura da nagusiena, hizkuntza barne delarik. Badira, noski, bestelako faktore historikoak edo geografiazkoak, Eliza partikularrak sortu dituztenak.

Dena dela, partikularitasunaren habeak eta ardatzak sakonean aurkitu behar dira, eta ez Liturgian kantaren bat lekuko hizkuntzan kantatzean edo.

Bi mailatan ikusi behar da Eliza, partikularitasuna aztertean: oinarriko mailan eta hazkunde mailan. Eliza

partikularraren oinarriko egitura lehen ikusi da. Orain, beraz, hazkunde-egitura aztertu behar da, horren koordenuak agertuz. Horretarako metodo positiboa hartzen du autoreak; Elizaren historian gertaturiko hiru adibide ematen ditu: Eslavoen Eliza partikularra, Zirilo eta Metodoren ebanjelizazioaren ondorio bezala; Euskal Herriko Eliza; eta Vietnam-eko Jorai Herriko Eliza. Hiru adibideotan Eliza partikularrak historian zehar nabarmentzen dituen berezitasunak agertzen saiatzen da.

Eta ondoren, banan-banan aztertzen ditu Eliza partikularraren egitura historikoaren ardatzak: 1) Eliza partikularraren beraren Liturgia; 2) Herriko bertako Hierarkia; 3) Eliza Partikularraren beraren gogoeta teologikoa; 4) Misiolaritza; 5) Sinodoa.

Eliza partikular bakoitzak bere Liturgia berezia behar du: bi mailatan ikus daiteke hori: aurrenik, Eliza bakoitzak bere hizkuntza erabili behar du Liturgian; areago, bere herri-tradizioan kokatu eta mamitu behar du liturgiako espresioa; bigarren mailan, Eliza partikular bakoitzak bere liturgia sortu egin behar du, herriaren kultur tradizioetik abiatuz. Hala ere, zenbait baldintza eskatzen da, Liturgia bereziak mamitu daitezen: hizkuntzak berak gauza izan behar du Eliz Liturgiarako; herriak Etni kontzientzia behar du; kristauak beraiek eskatu beharko lukete beren Liturgia berezia.

Eliza partikular bakoitzak bere Hierarkia, bertakoa, eskatzen du: aurrenik bertako apezpikua; eta horrekin batera klero guztia. Apezpikuaren egiteko nagusia eta zabala aztertzen du autoreak, bai Eliza partikularraren barnean bertan, eta bai beste Eliza partikularrei buruz ere, komunioaren eusle eta eragile bezala. Horregatik, apezpikuak eta klero guztiak bertakoa izan behar du, edo oso bertakotua, eta bere egitekoak betetzeko bertako hizkuntza jakin behar du. Areago, apezpikuak Eliza partikularraren bertakotzearen eragile izan behar du, horrek behar lituzkeen ministeritza berriak ere sortuz eta eratuz.

Eliza partikularraren instituzionalpen bide honetatik, Apezpikuen Konferentziaz eta apezpikuen arteko bestelako elkarteez mintzatzen da. Konferentziak ez daukate estatu mailakoak izan beharrik; horren azpiko unitate etniko-kulturazkoei erantzun beharko liekete beren egituraren ere.

Eliza partikularrak **bere teologia** behar du... Kultureztapenaren bidez kultura bakoitzean Ebanjelioa berriro "jaino" egiten den bezala, Eliza partikularrak esentziala du bere teologiazko gogoeta berezia. Hala ere, beste Eliza partikularraren gogoetari buruzko irekitasun osoa gordeaz, komunioaren legearen arabera.

Eliza partikularrak ardatz esentziala du bere **misio-irekimena** ere. Etnia partikularrean kultureztatzearen beste aurpegia bezala da, beste Elizetikiko eta mundu osoarekiko irekimena eta ardura.

Eliza partikularraren agerkari garrantzizko bat, eta horren bosgarren ardatz bezala, **Sinodo instituzionaldua** hartzen du autoreak. Historian zehar garrantzia handia izan du, batez ere Eliza partikularraren bertakotzea eta kultureztapena aurrera eramateko.

Azkenengo orrietan, liburu osoaren sintesi moduko bat egiten du: haseratik amaieraraino Elizaren partikulartasunaren eta katolikotasunaren arteko lotura eta dinamika azaltzera dator. Beharbada gehiago, katolikotasuna partikulartasunaren bidez argitzera: konkretuago, gutxiengo etnikoek Elizaren Katolikotasun historikoa gauzatzeko duen eginkizuna argitzera.

* * *

Orain artekoa, autoreak liburuan esaten dituenen laburpena besterik ez da izan. Bere pentsaera jatorki jaso izana nahi nuke.

Liburuko gaiari eta zenbait puntu konkreturi buruzko bigarren irakurketa kritikoari heldu aurretik, liburuaren "formari" buruzko eritzi orokorren bat edo beste eman nahi nuke.

Zalantzarik ez dago, autoreak gaia ondo aukeratu duela: Zientzien beste alorretan ezezik, Teologian-eta bereziki Eklesiologian duen gaurkotasuna uka ezinekoa da. Azken Kontzilioaren ondoren batez ere literatura nahiko ugaria sortu da gai horri buruz.

Metodologiaren aldetik, aski berea eta aberatsa du: Teologia teoriko abstraktu hutsari ihesegiten dio, bai eta Bibliako edo Eliz Irakasgoaren dokumentuen bilduma eta iruzkina emate hutsari. Funtsean gogoeta teologikoa izanik, kontzeptu antropologiazkoak, datu historikoak eta iradokizun praktikoak ere nahiko ugari erabiltzen ditu, gogoeta teologikoari konkretutasuna emanaz.

Gaiaren aldetik gauza berri berezirik ez dakar liburuak; baina bere alde du "Gutxiengo etnikoen" garrantzia eklesiologikoa hain nabarmen jarri izana, katolikotasunaren interpretazioaren oinarri-oinarrian ipiniz. Bestalde, gaia erabiltzeko modua nahiko berea du autoreak, lehen adierazi dudana bezala. Aitortu beharra dago, gainera, sintesi egokia egitera iritsi dela.

Hala ere, nere ustez, liburuan zehar oker metodologiko bat nabarmen xamarra ikusten dut: Etikaren —edo Eliz doktrina sozialaren— eta teologiaren alorrak nahastea. Gogoetak teologikoa izan nahi du: hain zuzen ere, Gutxiengo etnikoen baiezteak Elizaren autoadiera eta autoizaera inplikatzeko; beraz Elizaren beraren barrutik eta horren katolikotasunaren barnean aztertzen saiatzen da Gutxiengo etnikoen arazoa. Baina behin baino gehiagotan hauen defentsa etikora pasatzen da autorea, gogoeta teologikoaren haria hautsiz eta nahasiz.

Horrexegatik edo, gaiaren azalpena nahasi xamarra gertatzen da kapituluetan zehar. Eta ideia berberen errepikatzeak ere gehiegitan gertatzen direla iruditzen zaio irakurleari.

Bukatzeko, Elizaren irakasbide eta jokabideak ekartzen dituenean, apologetika-kutsu handiegia jartzen du; katolikotasunari buruz, hain zuzen, eta Gutxiengo etnikoei buruzko jokabideak, testuinguru historikoaren barnean ulergarriak

baldin badira ere, aski kritikagarriak ere badirela uste dut. Nahiko urbil eta gertuko zuen autoreak Euskal Herriaren kasua bera, Elizaren jokabide praktikoa astindu ahal izateko.

2.- Eliza unitariorik Eliza komunitariora

Teologiaren historian bi Eklesiologia modu nabarmendu izan dira funts-funtsean: baita "unitarioa" dei daitekeena; bestea "komunitarioa" izenda daitekeena. Aurrena mendebalean nagusitu izan da; bigarrenak egialdean garrantzi handiagoa izan du.

Eklesiologia unitarioa Erroman zentralismoari loturik joan da. Elizari buruzko gogoeta teologikoa Eliza unibertsaletik hasi da: honek bere erdigunea Erroman du, Aitasantua bait da Eliza osoaren Artzain nagusia. Elizaren parteak dira Diozesiak, eta horien artzain dira Apezpikuak.

Eliza partikularraren kontzeptua oso itzalia gelditzen da; eta gehienbat ere Diozesiari dagokio kontzeptu hori, baina hau ere sarritan Eliza unibertsalaren parte administratiboa besterik ez da.

Hizkuntzari dagokionez, latera gainditzen da Eliza osorako: eta hori batasun oinarri bezala defendatzeko arrazoin teologikoak erabiltzen dira. Liturgiaren aldetik ere erabakertasuna edo uniformitatea nagusitzen da.

Eliza modu honen bestelako aurpegia erakusten du Ekialdeko teologiak. Eklesiologia "komunitarioa" deitzen dugu hori. Kristoren Eliza ez da, hasteko, munduan zehar zabaldurik dagoen Institutio handi hori, eta bai giza komunitatean sortzen den fededunen komunitatea. Unitate kulturazko bakoitzean, Liturgia modu partikularra sortzen eta eratzen da, bere hizkuntza eta guzti. Eliza partikular hauen "komunioa" besterik ez da Eliza unibertsala.

Behin eta berriro mendebaleko Elizan ere ahalegin isolatuak egin izan dira, Eklesiologia komunitarioa berreskuratzeko, Eliza partikularraren funtsezkotasuna nabarmenduz; baina Teologia "ofizialaren" indarpean ito izan dira ahalegin

horiek. Azken berrogeitamar urteotan, Eklesiologiaren berrikuntzaren alderdirik nagusiena Eliza partikularren "funtsezkotasun" hori birreskuratzea izan da, hain zuzen ere. Eta Kontzilioaren ondoren ikuskera hau nagusitzen ari dela esan daiteke, nahiz eta oraindik Teologia tradizionalak eta Erromaren zentralismoak indar handia eduki.

Eliza komunitarioaren bidetik doa autorea. Eta esan daiteke, esan ere, Teologia tradizionalan gutxien landu den Eliza partikularren alderdiari heldu nahi diola. Batenbatek esango luke, Teologiaren ertzean edo mugan dabilela; baina, hain zuzen ere, mugan edo "mugatik harutza" egon diren gai batzu erdialdera ekartzea da gaurko arazoa.

Eliza partikularretik abiatzen den Eklesiologian, beste gaiek bezala, katolikotasunak ere bestelako adiera eskatzen du: hau da, ez dadila hori katolikotasun misterikoan agortu eta ez dadila unibertsaltasun abstraktuan urtu; alderantziz, katolikotasun historikoa baieztatu beharra dago; historia, berriz, herri ezberdinek eta kultura ugariak eta horien arteko dinamikak egiten dute. Historia konkretu horretan kokatu eta mamitu beharra dauka Elizaren katolikotasunak ere: hau da, partikularitasuna konkretuan zertzen da katolikotasuna. Aldi berean, ordea, herrien eta kulturen partikulareria eta herstura antihistorikoaren kontrakoa da katolikotasuna: hau da, txokokeria ukatzen du. Partikularitasunaren eta unibertsaltasunaren arteko dinamika historikoan zertzen da Elizaren katolikotasuna.

Unibertsaltasuna-partikularitasuna-katolikotasuna... Teologiak hitz abstraktuen arteko jokoan erortzeko arriskua du; eta hortixe ihese giten saiatu da, hain zuzen ere, gure liburuen idazlea. Zera sozial, kulturazko, politiko eta ekonomikoetan bere egiazkotasuna egiaztatu eta bere mamia mamitu behar du teologiak.

Katolikotasunaren zera konkretu eta partikular hori Eliza partikularra da, hain zuzen ere. Baina Eliza "partikularra" edo "lekukoa" bera kontzeptu ugaria da, kokatzen deneko unitate sozio-kulturazkoak ere ugariak direlako:

handiagoak ala txikiagoak, alde batetatik ala bestetik berezituak.

Eliza partikularrak giza-talde jatorrizkoen garrantzia nabarmentzen du, gizonaren askapen eta salbamen gune bezala. Antropologia sozial eta kulturaletik edan ahal izan du Eklesiologiak. Alde honetatik autoreak aurrerakada egin du, katolikotasun geografiko-demografikotik katolikotasun etniko-kulturazkora. Izan ere, unitate sozialen oinarrian kulturazko nortasuna dago, bestelako berezitasunez gainera (ekonomikoa, soziala, politikoa, etab.). Horregatik, Eliza partikular ugarietako mota bat, mota nagusienetako bat, unitate etniko-kulturazkoak definitzen du.

Eliza partikularra, bere izaera ugaritan, eta giza-talde jatorrizkoaren baieztapen eta finkapen bezala, nazionalismo inperialistaren kontrakoa da: hau da, gutxiengo etniko-kulturazkoak irentsi nahi dituenaren ukapena. Honelako Eliza nazionalista eta Eliza partikularra elkarren kontrakoak direla esan daiteke. Alde honetatik garrantzizkoak dira, autoreak, katolikotasuna eta nazionalismo hertsiairen arteko nahasketari buruz egiten dituen gogoetak.

Era berean, estatalismoaren kontrakoa da Eliza partikularren baieztapena, estatuak gehienetan ez bait dira gerren eta akordio diplomatikoen ondorio besterik, jatorrizko herri eta giza komunitateei erantzuten ez dietenak. Elizaren estatalismoa nabarmena da, estatu modernoa sortu eta eraiki denetik. Eliza partikularren baieztapena zuzen-zuzenean jokabide horren kontrakoa da, hainbat estatu modernok gutxiengo etnikoak eta jatorrizko komunitate nazionalak irentsi eta desegiten dituelako.

Eliza partikularrak baieztatzen eta mamitzen duen katolikotasunak ez dauka kosmopolitismoarekin zerikusirik. Pentekoste egunak, autoreak gogoratzen digun bezala, hizkuntza partikularrak baieztatzen ditu eta ez "koiné" zelakoa. Nazioartekoa da Eliza, nazio konkretuen komunioa finkatzeko; ez nazioen gaineratik dagoen instituzioa edo ente abstraktua. Kapitalaren multinazionalismoak ere ez dauka

zer ikusirik Eliz misterioaren katolikotasun historikoarekin, horrek jatorrizko giza komunitateen gaintik eta kontra diruaren inperio hotza ezartzen duelako.

Gizonaren giza ingurunea baieztatzeraz eta gordetzeraz dator Eliza partikularra: ingurune kulturazkoa eta hizkuntzazkoa, fisikoa eta biologikoa. Ez "jatorrismo" atzerakoia salbatzeko, baina bai gizona, bere ingurune jatorrizko eta guzti, gaintik inposatu nahi zaion kontsumismo, ekonomizismo eta "esperantismo" guztietatik liberatzeko eta askatzeko.

3.- Eliza partikularra eta lekuko Eliza

Halako batean (156. eta ondorengo orrialdeetan), autoreak bereizkuntza bat egiten saiatzen da: Eliza partikularren ("Eglise particulière") eta lekuko Elizaren ("Eglise locale"-aren) artean. Horretarako H. de Lubac-en *Les Eglises particulières* liburu ezaguna aztertu eta astintzen du; eta azkenean horren bi hitzak —"particulière" eta "locale"— itzulipurdikatu egiten ditu, bata eta bestea alderantziz erabiliz. Autorearen arabera, "Eliza partikularra" kultur eta soziologi unitate bati dagokiona da; "lekuko Eliza", berriz, zuzenean Diozesiari dagokio.

Beharbada H. de Lubac-ek egin nahi izan du aurrenik "Eliza partikularren" eta "Eliza lekukoaren" arteko bereizkuntza. Geroztik, alor horretan dabilen edozein, bereizkuntza hori aipatzeraz —onartzeraz, aldatzeraz ala baztertzeraz— behartua dagoela dirudi. Egia esan, nik neuk oraindik ezin dut jaso bereizkuntzaren funtsezko arrazoin teologikoa. Areago, bereizkuntza hori nabarmentzeak, Eliza partikularren (lekukoaren) esanahi teologikoa okertzeraz eraman gaitzakeela uste dut. Autorea, aipaturiko orrialdeetan, saiatzen da bereizkuntza argitzen; baina gero liburuan zehar ez dirudi hain argi gelditzen denik. Izatez —eta honetan autoreari barkamena eskatu behar diot—, lehenengo partean, liburuaren mamia eta haria ematean, "partikularra" eta "lekukoa" hitzak ezberdindu gabe erabili ditut; baina ezberdinketa egiteko bide zehatzik ez du ematen idazleak berak, liburuan zehar.

Baina, hitzak hitz, funtsezko arazoa dago tartean, liburu osoaren ardatz nagusian dagoena, eta, uste dudanez, autoreak aski argitu gabe uzten duena. Hau da, Eliza partikularra, ingurune sozio-kulturazkoari dagokiona, benetan eta berez zera teologikoa ote da, ala Elizaren inguru eta oinarri soziologikoa bakarrik? H. de Lubac-ek nahiko argi esaten du Eliza partikularra —harentzat lekukoa—, Elizarentzat garrantzizkoa izanik ere, zera soziologikoa dela. Latxagak ez du hainbestekorik esaten, baina ez du argi uzten “Eliza partikularren” teologiazkotasuna.

Latxagak, ia liburu osoan, bi mailatan bezala jokatzeko du, maila horik era batetara baino gehiagotara adieraziz: Elizaren esentzia / existentzia, ikuspegi teologikoa/ikuspegi soziologikoa, oinarriko egitura/hazkuntza-egitura... Lekuko Elizak —hau da, Diozesiak— Kristoren Elizaren “esentzia” betetzen du, benetan Elizaren oinarriko egitura. Eliza partikularra, berriz, —hau da, unitate sozio-etnikoari dagokiona— Elizaren “existentzia”ren fruitua da, Elizaren dimentsio soziologikoari erantzuten dio, eta bertan mamitzen da Elizaren “hazkuntza-egitura”.

Nolabait biltzeko —eta autoreak berak zuzenean erabiltzen ez dituen hitzak erabiliz— Diozesia edo Eliza lekukoa Kristoren Elizaren misterioari dagokio; Eliza partikularra, berriz, Kristoren Elizaren historiari dagokio. Baina zein da bien arteko harremana?

Lekuko Eliza, hau da, apezpikuaren inguruan biltzen den komunitatea, ikuspegi teologikotik bakarrik begiratzerik ez dagoela esaten du autoreak; ikuspegi soziologikoak ere garrantzia duela; baina badirudi beti Eliza lekukoaren kultureztate hori, alderdi soziologiko hori, eraskin bezala gelditzen dela. Bestalde, Eliza partikularra —giza unitate-maila ezberdinetan gerta daitekeena: etniko edo hizkuntzazkoan, politikoan, etab.—, zera sozio-kulturazkoan oinarritzen da: nolabait, erizpide soziologikoen bidez aurkitzen da.

Inoiz baieztatzen du, bai, Elizaren egitura sakramentuzkoari dagokiola berez kultureztapena; eta alde horretatik,

kultuztapen horretatik sortzen den Eliza partikularra zera teologikoa litzateke oinarri-oinarrian; baina autoreak ihesgiten dio arrazoinketa honi.

Iruditzen zaidanez, liburuaren abiapuntuan bertan bide okerretik planteatu du autoreak Eliza partikularren azterketa teologikoa. Hau da, Elizaren katolikotasunaren koalitate bezala ikusi eta argitu nahi izan du horren partikularutasuna, eta bereziki Eliza partikularra bera. Bide horretatik arrazoinketa osoa indargabeturik gelditu zaiola uste dut haserati bertatik. Katolikotasunaren oinarri kristologikoa ez du aski nabarmendu eta zabaldu: batez ere gizon egitea eta berbizkundera... Gizakundearen Kristok Elizaren kultuztapenaren oinarri teologikoa, eta Berbizkunderaren bitartez nolabait kultura guztien eta giza balio guztien alkarganatzeko eskatologikoaren oinarria jarriak ditu. Kristoren gizakundearen eta berbizkunderaren "bitartean" gauzatzen eta mamitzen da Eliza historikoa: ez bitarte hori "epe historiko" bezala harturik, baina bai bi gertakarien arteko "lotura misteriko" bezala harturik.

Eliza "partikularren" eta "lekukoaren" arteko bereizkuntza egin aurretik, autorea Diozesiatik abiatzen da Eliza partikularra definitzeko; lau elementu berezko eta beharrezko aipatzen ditu: Espiritu Santua, Jainkoaren Hitza, Eukaristia eta Apezpikua. Eta halako batean zera dio: "A l'Eglise presidé par un évêque, on donne le nom d'Eglise particulière" (113. or.). Lau elementu horiek Elizaren esentziakoak badira, esentziakoa ez ote da horren historikotasuna ere? Elizaren kultuztapena, kultura konkretutan mamitzea eta jaztea ez ote da dimentsio teologikoa? Baina, lehen esan bezala, autoreak Diozesia Elizaren "misterioaren" —teologizkoaren— muinean ikusten duen bezala, ingurune sozio-kulturazkotik sortzen den Elizaren unitatea Elizaren katolikotasunaren argigarri besterik ez du ikusten; ez da konturatzen, nonbait, Kristoren Eliza, unitate etniko eta kulturazko berri batean sartzean eta kultuztatzean, nolabait Eliza berri bat sortzen dela, Elizaren historikotasun "esentziala" baieztatuz eta egiaztatuz.

Autorearentzat, berriz, Elizaren esentziakoa Diozesia da; eta "existentziakoa" —historikoa, beraz ez misterikoa?— Eliza partikularra. Eta azkenik, akzidentala litzateke, Eliza katolikoa ulertzeko, nahiz eta hori oso garrantzizkoa eta derrigorrezkoa izan. Nere ustez, ordea, Eliza partikularra —Diozesia bezala— Kristoren Elizaren egiturari berari dagokio, hau da, horren historikotasun esentzialari.

Autoreak Eliz unitatea bezala definitzen du Diozesia; eta horretarako bereziki hierarkiarekiko —apezpikuarekiko— erizpidea erabiltzen du. Alderantziz, ba dirudi, Eliza "partikularra" —unitate sozio-kulturazkoari dariona— ez dela benetako Eliz unitatea, Eliza katolikoaren katolikotasuna mamitzeko eta konkretatzeko bidea baizik: eta horrexegatik, ez "substantziala". Nere ustez, Diozesia —"Eliza lekukoa"— eta bestelako Eliza konkretuak —"Eliza partikularrak", autorearen hitzez—, denak dira Eliz unitateak, eta ez kualitate soilak. Denak daude maila teologikoan, nahiz eta Diozesia eta bestelako Elizak, beren partikulartasunean definitzean, erizpide teologiko nagusi ezberdinak erabili: batean, erizpide ministeriala; bestean, erizpide "enkarnazionala", nolabait deitzeko.

Areago, nahiz eta Diozesia definitzean nagusiki erizpide ministeriala erabili, hori bera, Elizaren konkrezio historikoa denez, ez dago erizpide "enkarnazionala" aparte ulertzerik, benetan Eliza lekukoa edo partikularra izango baldin bada.

Azkenik esan dezakegu, esan, "lekuko" Eliza eta Eliza "partikularra", biak Kristoren Elizaren kultureztapen "enkarnazional" horretan batzen direla.

Horrexegatik esan dut, esan ere, autoreak, liburuan aurrera bultzatu nahi lukeen ideia finkatzeko, hobe zukeela giza-kundearen misteriotik abiatu batez ere —eta horren ondorio historiko bezala aztertu Eliza partikularren kultureztapena—, eta ez Elizaren katolikotasunean oinarritu bereziki; Eliza partikularra, katolikotasuna zertzeko eta mamitzeko testuinguru soziologiko eta bide historiko hutsa balitz bezala utziz.

Bide hortatik, H. de Lubac-en terminologia —“lekukoa”/ “partikularra”— itzulipurdikatu egin baldin badu ere, azkenean haren ondorio beretsuetara jotzen duela uste dut J.M.Latxagak. De Lubac-ek Eliza unitariotik Eliza komunitariorako urratsa emana zuen; eta gure autorea bide horretatik abiatu da. Areago, Eliza “partikularren” lekua nabarmendu eta finkatu nahi izan du, gutxiengo etnikoen balio eklesiologikoa agertuz; baina, zoritxarrez, Elizaren katolikotasunaren eta misioaren kualitate, bide eta baldintza bezala ulertu du Eliza partikularra; ez, ordea, Eliza unitate bezala, horren egitura osoaren mailan eta barnean. Horretara bideratu du, Diozesiaren —“Lekuko Elizaren”— eta “Eliza partikularren” artean ezarri duen bereizkuntza desegokiak: hau haren funtziotan bakarrik edo nagusienik ikustera, halegia.

Kristoren gizakundeak Elizaren sakramentaltasun historikoa oinarritzen baldin badu eta horren egitura sakramentala definitzen, orduan esan beharrean gaude, Elizaren kultureztapen historikoa eta konkretua eta, beraz, horri darion Eliza partikularra, Eliza unitate bezala, zerbait egiturazkoa dela —ez azaleko dimentsioaren bat— eta Kristoren Elizaren misterioaren muinean kokatzen dela, eta kontzeptu erabat teologikoa dela. Eta “lekuko” Elizari buruz —Diozesiari buruz—, bere adiera eta izaera nolabait autonomoak dituela, edo gutxienez harekiko harreman dialektikoa duela.

4.- Euskal Eliza partikularra

Liburuaren asmoan bertan eta kapituluetan zehar, autoreak aurre-aurrean du Euskal Elizaren arazoa —“Euskal Herriko Eliza” nahiago luke beharbada autoreak; baina honetaz ez gara orain ihardungo—. Aipatu ere, behin baino gehiagotan aipatzen du Euskal (Herriko) Eliza.

Hala ere, uste dudanez, ilun samar gelditzen da, liburuaren azkeneko, Euskal Elizaren eskabidearen oinarria eta Euskal Elizaren esanahia bera.

Izan ere, autorea “gutxiengo etnikoa” kontzeptutik abiatzen da; “etnikoa” hitza adina “gutxiengoa” hitza

nabarmenduz. Gutxiengoaren kontzeptuak, ordea, ez du Eliza partikularrarentzako lekurik egokiena ematen, inolako etnia ez bait da Eliza partikularraren lekua, gutxiengoa delako, eta bai etnia delako. Horregatik, Euskal Elizaz, oinarri tinkoen gain mintzatzeko, Euskal Herria bera Herri bezala, edota etnia bezala edota nazio bezala ikusi behar da: Bide honetatik hitzegin ahal izango dugu Euskal Elizaz, Eliza partikular bezala hartuz, Herriaren, Etniaren edo Nazioaren mailako Eliza partikular bezala hartuz.

Autoreak, ordea, esana dugunez, maila horretarako Eliza partikularra eta Diozesia —lekuko Eliza bezala— gehiegi bereizten ditu: bata teologiaren alorrean jarriz eta bestea nolabait soziologiaren alorrera, edota soziologiaren eta teologiaren arteko muga-mugara bidaliz. Euskal Herria, ordea, bost diozesitan banaturik dago —eta hauek ere ez zaizkio gehienetan bakoitzaren alderdi instituzionalez eta beren arteko batasunez Euskal Herriari egokitzen—; orduan, Diozesia baldin bada, Eliz unitate teologikoa —eta bestelako Eliza partikularrak, haren eta Elizaren katolikotasunaren dimentsio konkretuak besterik ez—, Euskal Elizaren ideia eta asmoa indargabeturik gelditzen da.

Beste aldetik, Euskal Herria ez da gizarte erabakarra; eta honen analisi soziala ez dago, etniari edo hizkuntzari edo tradizio historikoari begira bakarrik egiterik. Alderantziz ere esan daiteke agian: hau da, Herri bezala aski desintegraturik dagoela. Dena dela, hainbat mailatan eta hainbat sektoretan banatu ahal izango da gure gizartea; eta Eliza partikularraren arazoa —edo hobeto esan, Eliz komunitateen arazoa— maila guzti horietan ipini beharko da. Areago, Euskal Herriaren egoera konkretuari begiratu, Herri desintegratua ematen du; gutxiengo kulturazko, hizkuntzazko eta bestelakoak Herrian integratzeko biderik ez da izan. Baina honelako gutxiengoaren arazo soziala, nazionala eta eklesiala utz dezagun alde batetara hemen.

Autoreak, ordea, Eliza partikularraren arazoa aztertzen duelarik —eta neurri handi batez Euskal Herriari begira ari delarik— integratu gabeko gutxiengo horiei buruz ari dela

dirudi, Euskal Eliza eta gutxiengo horien Eliza partikularrak nahasiz. Berriz ere gutxiengoa eta etnikoa nahasi egiten dituelako dela uste dut, haseran bertan "gutxiengo etnikoa" oinarri bezala jarri duelako.

Eliza partikularren arazoak eta gogoeta teologikoak, Herri batetako gutxiengo etnikoen, hizkuntzazkoen, kulturazkoen etab. rezkoen eta sektore eta talde sozialen Eliz komunitate partikularrei buruz hitzegitera garamatzate; baina hori ez dago Euskal Eliza partikularrekin nahasterik. Ba dirudi, gogoeta horren barruan, eta nagusiki Euskal Eliza partikularri buruz ari omen denean, euskal komunitatea bera Euskal Herrian gutxiengotzat hartzen duela, eta bide horretatik defendadu nahi duela Euskal Elizaren partikularitasuna eta nortasuna. Hain zuzen ere, Baionako Diozesiako euskaldunak hango gutxiengotzat hartzen ditut... Jakin ba dakigu, Euskal Herri desintegratu honetan, batez ere hizkuntzaz euskaldun garenok, gutxiengoaren egoeran gaudela geure Herrian bertan; baina Euskal Elizaren arazoa ez dago maila horretan eta bide horretatik ipintzerik, eta bai bere nortasuna, batasuna eta naziotasuna berreskuratu nahian dabilen Herri eta Etnia baten mailan. Bestela, Eliza partikularren gogoetak Euskal Herria bera ukatzera eta desegitera garamatza. Iparraldeko kasu konkretuan, ez dut uste oraingo Baionako Diozesiaren barruan, hango euskaldunak gutxiengo bezala tratatzea eskatu behar denik, eta bai ipar Euskal Herriko Diozesia egitea: Eliza partikularren doktrinak hortik garamatzala uste dut.

256. orrialdean, liburu osoaren laburpen bezala edo, autoreak Eliza partikularren definizioa eskaintzen digu: *Elle correspond á la portion d'Eglise présente au milieu d'un groupe ethnique déterminé par une liturgie en langue vulgaire, cherchant á s'enraciner dans la culture du pays, convoquée par des évêques successeurs des apôtres en communion avec le Pape essayant loyalement de s'indigéniser complètement, suivant les ressources existantes sur place, créant une pensée théologique répondant aux appels de la mission, c'est-á-dire de la prédication et de la catéchèse correspondant aux catégories ambiantes de groupe en*

question, ouverte aux besoins de l'Église universelle et aux exigences de la communion, responsable d'elle-même et de son histoire dans un cadre collégial de pensée et d'action fraternelle en vue de l'édification de l'ensemble de l'Église.

Paragrafo luzea eta konplexua izanez gainera, Eliza partikularren deskribizioa bera nahiko nahasia gertatzen da. Dena dela, Eliza partikularren "hedakuntza-egiturari" dagozkion bost "ardatzak" biltzen ditu: bere liturgia, bere hierarkia, bere teologia, bere misio-irekimen eta dinamika (katolikotasun dimentsioa) eta bere barneko instituzionalpena (bereziki Sinodoaren bidez).

Bost "ardatzok", benetan hirutara bil daitezkeela uste dut; izan ere, Eliza partikularren kanporako dinamika eta misio-irekimena, partikulartasunaren dimentsioak baino gehiago, katolikotasunaren adierazgarri zuzenekoak dira: eta katolikotasun horixe dago, hain zuzen, lehenengo hiru ardatzen oinarrian, autoreak liburuan zehar adierazi duenez. Bosgarren "ardatza", berriz, barne-instituzionalpena, halegia, beste hiru ardatzak (Liturgia, Teologia, Hierarkia) konkretatzeko eta egituratzeko bidea besterik ez da. Beraz, Eliza partikularra, bere historikotasunean —"hazkuntza-egituran"— definitzen duena zera da: bere Liturgia, bere Teologia, bere ministeritzak edukitzea.

Ba ote dago, orduan, Euskal Elizarentzat lekurik? Eta zein da horren lekua Euskal Herri barruko bestelako Eliza partikularrei eta Eliz komunitateei buruz? Bereziki Diozesiei buruz?

Nere ustez —eta Kontzilioaren agiriak irakurriz ere bai—, Eliza partikularra —edo lekukoa, berdin zait—, hainbat mailatako giza komunitate ezberdini dagokion Eliza definitzeko erabil daiteke.

Hala ere, guztien artean; hiru eredu bezala berezi genitzake, haietako bakoitza definitzean zein erizpide nagusitzen den ikusiz; hauek dira ereduok: **ministeriala** (bereziki Diozesia), **enkarnazionala** (bereziki unitate etniko-kulturalari dagokiona: Euskal Eliza, esate baterako) eta **komunionala** (gizartearen ugaritasunean sortu ohi diren edo sortu daitezkeen hainbat Eliz komunitate).

Hiru eredutako Eliza partikular guztiek, **Eliza** diren neurrian, Kristoren Elizaren "oinarriko egiturako" elementu guztiak behar dituzte: Hitza (profezia), Komunia (koinonia) eta zerbitzua (diakonia). Eta **Eliza partikular** diren neurrian, hiru dimentsio horik ingurune sozio-kulturazkoan konkretatu eta mamitu behar dituzte: Hitzaren **teologia** (edo gogoeta teologiko) konkretua eta bertakoa landuz; Komunioa komunitatearen barne bizitzan mamituz eta adierazpidetan emanez, bereziki **Sakramentuen** bidez eta **Liturgia** konkretua eta lekuan-lekukoa landuz; munduarekiko Zerbitzua gizartearen premiei egokituz eta horretarako behar diren **Ministeritzak** (bereziki Apezpikuarena) egituratuz).

Alde honetatik, eta autoreak 5. kapituluaren nahiko egoki adierazten duen bezala, Eliza partikularrak —edozein eredutakoa delarik— hazkuntza-egituraren hiru dimentsio horik beharrezkoa ditu: Teologia, Liturgia (Sakramentuak) eta Ministeritza modu bereziak eta berezituak. Eredutako bakoitzak, bereziki eta nagusiki dimentsio batetatik definitzen baldin bada ere, beste dimentsioak landu beharrekoak eta bizi beharrekoak ditu, benetan Kristoren Elizaren izena eramango badute eta benetan Eliza partikularrak edo Eliz unitateak izango badira.

Hiru eredutako Eliza partikularrak aurkituko ditugu Euskal Herrian; guztiak beharrezkoak dira, gainera. Eliza **ministerialak** (Diozesiak, etab.) bestelako Eliza partikularren oinarrian daudela esan beharra dago, eta horiek honenganako erreferentzia esentziala dutela; baina Diozesiak ez du Eliza partikularren adiera eta izaera agortzen. Eliz komunitate "**komunionalak**" ere beharrezkoak dira Euskal Herrian, gizarte honetan Elizaren komunio-dimentsioa nabarmenduko bada (bide horretatik doaz, uste dudanez, oinarriko kristau elkarteak eta kristau elkarte herritarrak); baina Diozesiei eta oinarriko komunitateei Euskal Herri mailan batasun eklesiala ematen diena Euskal Eliza, edo Euskal Herri mailako Eliza partikularra, **enkarnazionala** da. Eta batez ere maila honetan, hau da, unitate etniko,, kulturazko, hizkuntzako eta nazionak honen mailan hartzen du bere

zentzu osoa, Eliza partikularraren kultureztatze horrek, bereziki bere Teologia, bere liturgia eta bere Ministeritzak sortuz, egokituz eta eratuz.

Teologiari buruz, alde batetik, Eliza partikularrak bere gogoeta teologikoa eta bere teologia landu behar ditu. Autoreak, testuinguru honetan, "Kristau kultura indigenoaz" ere hitzegiten digu. Baina ba ote dago eta nolatan kristau kultura? Teologia partikularrak integralismotik ihesegin behar duela uste dut. Bestalde, teologia partikularraren irekia izan beharra nabarmentzen du, bestelako eta beste Elizetako teologiengatik elkarriketa zabala eratuz. Puntu hau oso interesgarria eta gogoan eduki beharrekoa dela uste dut. Hala ere, Teologia partikularrari buruzko gogoeta ez dut uste autoreak aski sakontzen duenik.

Gehiago sakontzen du Liturgia bereziaren arazoa. Liturgia "partikularraren" berezitasuna ez da azaleko jantzian bakarrik (bertako hizkuntza erabiltzean edota bertako zenbait ohitura eta sinbolo bereganatzean), eta bai Herriaren dinamika osoaren barruan mamitzean eta konkretatzean. Herriaren tradizioetik ezezik, Herriaren dinamika sozialetik eta kulturaletik sortu behar du Liturgia partikularra.

Eliza partikularraren ministeritzei dagokionez, berriz aipatu eta nabarmendu beharra dago, autorearen eritzari eta esanei eutsiz, ingurune sozio-kulturazko bakoitzean Eliz ministeritzak premien arabera egokitu, sortu eta eratu behar direla. Apezpikutzak bera, Elizaren oinarrikoa izanik, ez dago behin eta betirako eratua bere izakera eta jokaera osoan, historiak berak agertzen duen bezala. Apezpikutzak-ministeritzaren forma berriak aurkitzeko gauza izan behar du Eliza partikularrak; eta era berean, bestelako ministeritzei buruz.

Azkenik, interesgarria da Eliza partikularraren Sinodoari autoreak eskaintzen dion puntua. Instituzionalpen bidetik oso garrantzizkoa du Eliza partikularrak bere Sinodoa, batez ere Hierarkiaren mailan bakarrik eratzeko ez delako, eta bai Kristau Herri osoarena delako. Aspalditik hainbat lagun ari

da Euskal Sinodoa eskatzen. Eskabide berbera berriz ere aurrean ipini beharra dagoela uste dut. Euskal Eliza gorpuztuz, mamituz eta eratuz joateko —eta ez maila juridikoan bakarrik— oso beharrezko dela uste dut Euskal Sinodoa.

Donostia, 1979ko uztailak 19